

Gure enpresaren xedea eta egitasmo hau martxan jartzera bultzatu gaituena bakardadearen aurka egitea da. Denok dakigu jende asko bakardadean bizi dela eta askotan jende honen motibazio bakarra haien maskota da. Jende hau alaitzea da gure helburua. Hori lortzeko bere maskotekin gozatzeko baliabideak eskainiko ditugu, hala nola, arropa, desfileak eta ekitaldi publikoak. Honetaz aparte, bakardadearen kontra egiten duten erakundeekin lan egingo dugu hainbat modutan.

Horregatik, gure katuentzat arropa lerroa atera dugu. Lehenik eta behin, produktu jasangarri bat aterako dugu. Hau bermatzeko eskualdeko hornitzailetaz baliatuko gara eta Km0 lehengaiak erabiliko ditugu gure produktu bukatuak ekoizteko. Tokiko ekonomia sustatu eta bultzatu nahi dugunez, hemen bertan ekoitzi eta salduko dugu. Enpresaren hastapena denda fisiko baten bitartez izango da. Gure produktua pertsonalizazio maila handia izango duenez, hasieran aurrez aurreko zerbitzu bat eskainiko dugu. Gure dendara bezeroak etor daitezke eta haien katuentzat azken produktu pertsonalizatuak eta bereziak eskuratuko dituzte.

Laburbilduz, gaur egungo gizarteko bi arazo nagusi konpontzen saiatzea, zehazki, ingurumenaren babesa eta bakardadea. Hori lortzeaz gain, gure produktua kalitate bikaina izango du eta bertako ekonomia bultzatuko du.